



# **EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA**

## **FOLKLOREAREN IKERKETA BEKA - 2017**

Euskal Dantzarien Biltzarrak, Kultura tradizionala sustatzeko helburuarekin, urtero izango den ikerketa beka zabaldu egiten du. Jarduera honen inguruan dauden edo erlazioa daukaten diziplinak kontutan izango dira (Folklore, Etnografia, Etnologia, Antropologia, Soziologia, Historia, Artea ...).

### **GAIA**

Beka eskuratzeko aukera izango dute dantza eta musika herrikoia, ohiturak, tradizioak, jantziak, musika instrumentuak, haur jokoak, erritualak, gastronomia, festa tradizionalak, kondairak, eta orokorrean tradizioei edo forma folklorikoei erreferentzia egiten duena edo Euskal Herriko edozein puntuko herrietan izate edo bizimoduari erreferentzia egiten dieten ikerketa lanek.

Oso positiboki baloratuta izango da beka hau ematerako momentuan, Euskal Herrian edozein lurraldeko dantza eta musika herrikoien inguruan aurkezten dena.

Epaimahaiak sariketa hutsik utzi dezake, beraien iritziz aurkeztutako bekak betebeharrak dituzten baldintzak betetzen ez badituzte.

### **HAUTAGAIK**

- a) Beka honetara banakako pertsonak aukera izango dute.
- b) Lehiaketa herritar guztiei irekita dago, adin guztietakoak eta edozein nazionalitatekoak. Parte hartzaileak bertakoak edo kanpotarrak izan daitezke, mundu osoko ikerketa taldeari irekita dagoelarik.

### **IRAUPENA**

Proposatutako lana gehienez urte bateko epean egin beharko da.

### **ZENBATEKOA**

Bekaren diru kopurua 1.500.-€ garbikoa izango da.

### **SORTZAPENAK**

Bekaren sortzapena ondoren azaltzen den bezala egingo da: diru kopuru guztiaren %50a beka onartuta izaten denean. Beste %50a lanaren amaiera onartzen denean.

### **DOCUMENTAZIOA**

Hautagaien ondorengo dokumentazioa igorri beharko diote Euskal Dantzarien Biltzarrari:

- a) Hautagaiaren eskaera: Izen emate orria ondorengo web gunean dago [www.dantzagune.eus](http://www.dantzagune.eus)



# EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

- b) DNI, ENA,... -en fotokopia
- c) Eskatzailearen curriculum vitae-a,
- d) Egin behar duen lanaren xehetasunak biltzen dituen memoria

Lana bera eta dokumentazio guztia, Euskal Herrian ofizialak diren edozein hizkuntzatan aurkeztu daiteke: euskara, gaztelera edo frantsesa.

Eskatzen den dokumentazioa paperezko euskarrian edo euskarri informatikoan aurkeztu daiteke.

## **DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENA**

Aurreko atalean aurreikusten den dokumentazio guztia, [edb-koordinazio@hotmail.com](mailto:edb-koordinazio@hotmail.com) helbide elektronikora bidalita izan behar du 2017.urteko azaroaren 30a baino lehen.

Edozein kontsultarako hemen daude EDBren telefona eta helbide elektronikoa:

- F: 00-34-690812514
- [edb-koordinazio@hotmail.com](mailto:edb-koordinazio@hotmail.com)

## **BEKADUNEN BETEBEHARRAK**

Bekadunek ondorengoa bete behar dute:

- a) Euskal Dantzarien Biltzarrari idatziz, beka eman eta ondorengo 15 eguneko epearekin, bekaren onarpenaren berri eman behar zaio.
- b) Ohar, zirriborro, aurrerapen eta egindako lanaren emaitza guztiak Euskal Dantzarien Biltzarraren esku izango dira.
- c) Behin lana amaituta, hiru kopia aurkeztuko dira, tarte bikoitzaz mekanografiatuak, korrelatiboki orrien zenbaketarekin eta koadernatuak. Lanaren argitalpenerako dokumentazio guztia erantsita izango duelarik (argazkiak, marrazkiak, krokisak, partiturak ...).
- d) Lanaz gain, beka lortzen duen pertsonak 2 artikulua edo laburpen egin beharko ditu Dantzariak aldizkarian argitaratzeko. Artikulu hauek Dantzariak aldizkariaren argitaratze arauen barnean egon behar dutelarik.
- e) Aurrean eskatutako guztiaren editatzen ahal den eta formatu informatikoan dagoen beste kopia bat ere entregatu beharko da.

## **LANEN JABETZA**

Lan bakoitzaren jabetza bere egilearena izango da. Euskal Dantzarien Biltzarrak ikerketen argitaratze partziala edo osoaren eskubidea gordetzen du, edota web gunean ikus gai ipintzekoa, kasu honetan bekadunak egile-eskubideei uko egingo direlarik.

Euskal Dantzarien Biltzarraren eskubide honen erabilera, azken hartze prozesuaren ondorengo bi hilabeteetan izango da eta urte bateko epea izango da lan honen argitaratzea



# EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

egiteko, denbora hau pasa ondoren, egilea lana bere kabuz argitaratzeko askatasuna izango du, baina aldiro zehazki adierazita izango da beka hau jaso duela.

## **EPAIMAHAIA**

Epaimahaia, beka honen inguruko diziplinen arteko pertsonen osatuta egongo da eta Euskal Dantzarien Biltzarrak aukeratuko du. Erabakia apelaezina izango delarik. Dokumentu guztiak jasotzeko izango den epearen ondoren, hiru hilabete izango dira bekaduna hautatzeko eta zuzenean ezagutzera emango da.

Oinarri hauek idatzita dagoen honetan hutsegiterik balego, epaimahaiko kideak izango dira oinarria hauek idatziz osatuko dituztenak, edo beraien interpretazioak sortzen ahal dituen zalantzak.

## **GEHIAGO**

Euskal Dantzarien Biltzarrak beka eskatzen duenari lanaren inguruko edozein argiketa eskatzeko aukera izango du. Era berean, diru laguntza bertan behera utzi dezake, bekadunak aurreko ataletan azaltzen diren betebeharrak betetzen ez baditu.

Deialdi honetan parte hartzeko, oinarri hauek osotasunean eta askatasunez onartu behar dira.